15 .URTEURRENA

ortzadar

Larunbata, 2013ko otsailaren 9a. 295 zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak

JOSE IGNACIO AGORRETA

Margolari nafarrak bere kasa ikasi du margotzen, mundua mihise duela

-- 4-5. orrialdeak --

BELCEBLUES

Bergarako musikariak pozarren itzuli berri dira Memphiseko lehiaketatik

-- 2. orrialdea --

Bluesaren etorbidean, euskararen arrastoa

OLATZ PRAT

Ingelesa blues musikaren hizkuntza nagusia bada ere, Bergarako musikariek euskarazko abestiak eraman zituzten International Blues Challenge lehiaketara. BELCEBLUES

Memphisetik bueltan dira Belceblues taldekoak, Euskal Herria ordezkatu baitute munduko blues txapelketan. Ametsak final laurdenetan gelditu diren arren, bidaia ahaztezinaz gozatu dute musikariek

BERGARAKO Belceblues taldea Amerikako Estatu Batuetatik itzuli berri da. Asier Elorza (ahotsa, baxua), Ibon Larrañaga (gitarra, koruak) eta Oihan Vega (bateria, koruak) Memphisen izan dira joan den asteburuan, bluesa zainetan duen edozeinen ametsetako bat betetzen: Beale Street-eko klubetan galdu eta jotzeko aukera izatea. Ez da nolanahiko bidaia izan gainera, mundu mailako International Blues Challenge blues txapelketan hartu baitute parte, Euskal Herria ordezkatuz. Joan den udan aurkeztu ziren Hondarribiko Blues Elkarteak bigarren urtez antolatutako Road to Memphis lehiaketara. Izenak berak dioen moduan, Memphisera begira jartzen ditu txapelketak euskal blues taldeak, berau irabazteak munduko lehiaketan parte hartzeko txartela ematen baitu zuzenean. Euskal Herriko txapeldun izatearen garrantziaz gain, sari handiena bidaia eta aukera bera izan dela argi dute taldekideek.

Urtarrilaren 29tik hilaren 2ra jokatu da Memphisen lehiaketa. Urtarrilaren 30eko lehen kanporaketan izan zuten bergararrek euren bluesa erakusteko aukera eta, gustura egoteko moduko emaitza lortu zuten: "Ez genuen espero txapelketan ezer egitea, munduko blues talde onenak han izango zirela baikenekien, baina, lehen kanporaketa gainditu eta bigarrengora iristea lortu genuen, final laurdenetara", azaltzen du Vegak. Bigarrengo kanporaketa horretan gelditu ziren kanpo, "maila ikaragarria" baitzen jada, baina oso gustura daude egindako lanarekin.

Finalerdian eta finalean parte hartzeko aukerarik ez zuten izan, baina bai ikustekoa, entzutekoa eta ikastekoa. "Parte hartu bitartean geurean kontzentratuta geunden, baina behin kanporatuta eta presio hori gainetik kenduta, gozamen bat izan da klubez klub eta kontzertuz kontzertu ibiltzea", bateria-jotzailearen esanetan. Txapelketan bertan mundu osoko txokoetatik joandako 123 taldek hartu zuten parte, eta noski, denak ikusteko aukerarik ez zegoen arren, 24 orduz bluesa entzuten egon dira. Bidaia hau, beraz, euren pasio horri buruz gehiago ikasteko aukera paregabea izan da. "Beste musikari batzuekin hitz egin eta munduan zehar bluesa nola ulertzen den ezagutzeko aukera eman digu –dio Vegak–, oso interesgarria iruditu zaigu estatubatuarrek eta bereziki beltzek sortutako musika hori, beste herrialde eta beste kontinenteetan nola ulertzen den ezagutzea. Alemaniarrak, holandarrak, asiarrak eta australiarrak ere bazi-ren bertan eta oso interesgarria da nahasketa eta eboluzio hori ikustea, antzinako Mississippiko beltzetatik gaur egunera arteko bide hori".

BLUESA, EUSKARAZ ERE Belcebluesek euskara eraman du bluesaren etorbidera, eurek hala ulertzen baitute bluesa, euskaraz. Ez da ohikoena lehiaketa honetan ingelesa ez den hizkuntzetan abesten entzutea, ingelesa bera bluesaren oinarri baita. Hala ere, talde askok euren hizkuntza propioa erabili ez arren, bluesa euren kulturetako elementuekin pertsonalizatzen dutela ikusi ahal izan dute bergararrek. "Talde batek bere herrialdeko gitarra arraro batekin jo zuen adibidez, gu txistuarekin edo trikitixarekin joatea bezala litzateke". Kulturak nola nahasten diren eta baten jatorria bestearen eraginarekin nola aberasten den ikustea oso interesgarria izan dela diote. Belcebluesekoak oso baitira nahasketaren aldekoak, "hemen bezala, han ere puristak beti dauden arren".

> "Lehiaketaren presioa gainetik kenduta, gozamen bat izan da klubez klub eta kontzertuz kontzertu ibiltzea", diote

Hondarribiko lehiaketan garaile suertatu izanak hurrengo ediziora aurkezteko aukera kentzen die Belcebluesekoei, baina Memphiserako bidea behin ikasita, oso argi dute noizbait itzuliko direla, "maiteminduta" etorri baitira etxera: "Kale hori magikoa da, klubez eta argiz betea". BB Kingen izena daraman klub entzutetsuan soul hoberenaz gozatzea, han-hemenka zuzeneko emanaldiak entzutea, eta bidenabar Elvis Presleyren etxea bisitatu eta NBA-ko partida bat ikustea, luzaroan ahaztu ezingo duten bidaia baita.

Getxokoarekin batera, Hondarribiko Blues jaialdia da Euskal Herriko jaialdi garrantzitsuena, eta horrelako elkarteak eta ekimenak sustatzea euren moduko taldeentzat izugarrizko aukera dela diote musikariek. "Hondarribiko Blues Elkarteari eskerrak eman beharrean gaude, nola ez, eta horrelako kontuetan dirua ere garrantzitsua izaten denez, ekimena diruz lagundu duen Carlsberg garagardo etxeari ere eskerrak eman behar zaizkio", azaltzen du Vegak.

Bidaia honen kontakizuna ez da ordea albiste eta elkarrizketetan geldituko, bidaian grabatu duten materialarekin dokumental bat osatu eta hirugarren disko batekin kaleratzea da euren asmo nagusia orain. Bestetik, taldearen inguruan sortutako zurrunbiloa aprobetxatuz, kontzertu sorta bat eskaintzeko asmoa ere erakutsi dute, Memphisera eramandakoak eta handik ekarritakoak euskal herritarrei erakusten jarraitzeko.

KRITIKA

Zartailua

GOIZALDE LANDABASO

TITULUA: **'SINPLISTAK'** EGILEA: **HEDOI ETXARTE** ARGITALETXEA: **SUSA**

HEDOI Etxartek (1986, Iruñea) idatzitako bigarren liburuaren azalean agertutako hagin zorrotzek beldurra ematen badute ere, *Sinplistak* poema liburua irakurtzeari ekin nion. BAT: eta hasi egin nintzen: "Norberak bere ikuspuntua du, dio hilean 2.700 euro jasotzen duenak". Soinu batek eten zuen nire irakurraldia: auzokideak larrutan ari ziren. "Emakume bat maitatzea da ohartzea, oinez zoazela, albotik igaroko zaizula txirrindulaz, aurreratu egin zaituela ziztuan. Ipurmasail lirain horiek ikusi dituzu aulkian". Auzokide baten aieneak entzuten hasi nintzen, eta kolpe latzak. "Zure begi handientzat ez naiz izango bizidun. Zure hatz finentzat izango naiz okel". Haragi kontuak. *Sinplistak* ironikoa da, latza, xaxatzailea, borrokalaria, samurra, etsitua, kritikoa, zuzena, gordina, zinikoa...

BI: Tina Turner kantari hasi zen. "We don't need another hero...". Haginkonpontzailearen kontsultara joan nintzen. Eta liburua zabaldu nuenean jabetu nintzen: liburu hau ez da haginkonpontzailearen kontsultan irakurtzeko. "Ez dugu pastel zati bat nahi, pastelegi osoa nahi dugu!". Haginkonpontzailea gizon atsegina da, bata zuria eta eta nire ahoa inbadituko duten gailu horiek baditu ere, gizon atsegina da. *Sinplistak* ikusi zidan eta baita liburuaz galdetu ere. "Hau ez da aliantza taktikoa, talde bera dugu osatzen. Zelula bakoitzean haragitzen ditugu abangoardia eta erretagoardia: koadroak gara, liderrak eta ardiak; dominatzaileak eta dominatuak". Haginkonpontzailearen tornoa baino ez nuen entzuten.

HIRU: Taberna ezkutukoan hitzordua. Goiz ailegatzean aukera bi baino ez ditut ikusten: tabernariarekin hitz egin edo liburua irakurri. Tabernaria musika hautaketan murgilduta zegoenez, *Sinplistak*. "Bada jendea uste duena hondamendia dela ETA(m)ren ekintza armatuak bukatu izana bizkartzainak langabeziara joanen direlako". Garagardo bat eskatu nion. Ezin, ezin irakurketa baztertu. "Bada jendea egongelako leihoa ixten duena kalean grebalariek, langabeek edo prekarioek txistu eta karranka egiten dutelako kontsignak eta exijentziak aldarrikatzen". Eta orduan musika jarri zuen tabernariak. Meat Loaf-en aspaldiko kantua (bera apur bat Meat Loaf iruditu zitzaidan). "I would do anything for love...".

LAU: Gogoeta espazialak, errimarik bako poemak, kantuak izan litezken idatziak, harreman sentimentalaren enpirikotasuna, hezurdura kaotikoen azpian ezkutatzen den antolamendu zorrotza... "Diotsudanean hiriak maite ditudala amiantozko kaiola herdoilduari buruz ari natzaizu". Etxera bidean konturatu nintzen ilargiari betea izateko zatitxoa baino ez zitzaiola falta. Gutako norbaitek jango zuen.

> **Gogoeta espazialak, errimarik bako poemak, kantuak izan litezken idatziak, harreman sentimentalaren enpirikotasuna... Hori guztia da 'Sinplistak'**

BOST: Beste taberna batera sartu nintzen. Zaratatsua. Barra bazterreko espazioan zabaldu nuen *Sinplistak*. "Materialki miserablea denak sinetsita haizatzen al ditu tesi sozial-chauvinistak?". Batzuetan berriz irakurri behar dira Hedoiren berbak. Eta ez arduratu hirugarrenez irakurri beharrean bazaude.

SEI: Neguko oparia al da eguzki printza hau? Parkera. "... Gogoratu da bere hirian badirela diputatu legebiltzarkide zinegotzi superemakume eta supergizonak, gai direnak lau mila bost mila edo sei mila euro hilean kudeatzeko eta ezkertiar izaten jarraitzeko...". ZAZPI: Oheratu orduko: "Gure belaunaldia ez dute droga hilkorrek aurretik eramango. Ez dugu epikarik, bidaia iniziatikorik, proiekturik, errebeldiarik. Mediokreak gara, Alderdi Ekolojistaren aginduz". Eta begiak itxi baino segundu bat lehenago; "oheetara joateko desira duzunean ez nahastu liburuak eta oheak".

SALDUENAK

Fikzioa

1. **Mussche**
Kirmen Uribe. Susa.

2. **Zaindari ikusezina**
Dolores Redondo. Erein.

3. **Ez naiz ni**
Karmele Jaio. Elkar.

4. **Idazten ari dela idazten duen idazlea**
Iban Zaldua. Elkar.

5. **Eserleku hutsa**
J. K. Rowling. Alberdania.

6. **Urak dakarrena**
Toti Martinez de Lezea. Ttarttalo.

Ez Fikzioa

1. **Emakumeak, hitza eta bizitza**
María Begoña Bilbao. Euskal Herriko Unibertsitatea.

2. **Bitan esan beharra**
Rikardo Arregi. Alberdania.

3. **Urtebetetze festa**
Castillo Suarez. Elkar.

4. **Piztiarioak**
'Txiliku'. Elkar.

5. **Arrazoia ez dago edukitzerik**
Iñaki Segurola. Alberdania.

6. **Txillardegi**
Fito Rodriguez. Erein.

LIBURU DENDAK: Elkar, Casa del Libro (Bilbo), Auzolan (Iruñea)

ERAKUSLEIHOA

KLASIKOAK

'Gure garaiko heroia'



Mikhail Jurievitx Lermontov. Elkar. 15,85 euro.

Gaizkile tragiko eta erromantikoez

1838tik 1840ra bitartean idatzitako menturazko nobela psikologikoa da. Bost narrazio biltzen ditu eta bertan Petxorin ofizial errusiarrari Kaukasoan gertatutakoen berri ematen digu Lermontovek. Errusiako prosaren obra klasikotzat jotzen da eta eragin handia izan zuen garaiko gizartean eta geroko literaturan. Izenburuak berak adierazten du gizarteari egiten dion kritika zorrotza, zeren heroi gisa aurkezten diguna moralik gabeko gizona baita, "gaizkile tragiko eta erromantikoa".

SUKALDARITZA

'Angelita Alfaroren sukaldea'

Angelita Alfaro Vidorreta. Ttarttalo. 180 orr. 22,50 euro.

'Dekonstruziorik' gabeko errezetak

Angelita Alfaro ume-umetatik ibili da su artean. Sukaldaritzari buruzko lehenengo ezagutzak amaren eta izeben eskutik jaso zituen. Berehala konturatu zen benetako zaletasuna ziola sukaldaritzari. Hasieran, etxekoekin jarri zuen praktikan, baina eguneroko zereginetatik aske geldi-tu bezain pronto, ezagutza haiek ingurukoei helarazteari ekin zion. Errezeta-liburu hau betiko sukaldaritza onaren erakusgarri praktiko bikaina da, eta ez "patata tortillaren dekonstrukzioaren" erakusgarri, berak esan bezala.

HAUR LITERATURA

'Elmer'



David McKee (testua eta ilustrazioa). Aiora Jaka (itzul.). Erein. 40 orr. 13 euro.

Banakotasunaren aldeko ipuina

Elmer elefantea ortzadarra bezain koloretsua da. Hori dela eta, bere taldeko elefanteek barre egiten diote. Besteek bezala elefante-koloreko azala balu, inork ez lioke barrerik egingo, eta horrek hobeto sentiaraziko luke Elmer, ezta? Ondorioek beste zerbait erakusten dute, ordea... David McKee idazle eta ilustratzaileak sinatua, banakotasunaren aldeko aldarrikapen sutsua da. Klis-Klasikoak bildumako ipuin dibertigarri hau 4 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

ZALDI EROA

Editorial Iparraguirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria
Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)
Koordinazio lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)
Diseinua: Jesús Santamaría
Maketazioa: Naroa Etxebarria
Portadako argazkia: Iban Aguinaga
Lege Gordailua: BI 1720-06

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Margotuz margotzen ikasi zuen margolaria

Jose Ignacio Agorreta artista iruindarrarentzat, pintura bizi-filosofia da. "Nire bizitza margoarekin egon da lotuta beti", dio. Etxeko egoera ekonomikoak ez zuen ahalbidetu Arte Ederretako fakultatera joan izana, hortaz, bere kasa ikasi du diziplina. Eta mundua izan du eskola

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

GAUR egun musika kontserbatorioetan ikasten omen da, margotzen Arte Ederretako fakultatean, bertsotan bertso-eskolan... baina bada oraindik autodidakta den artistarik ere, norbere kabuz, ilusioz eta ahaleginez artista izateko kapazitate hori bereganatzen duenik.

Jose Ignacio Agorreta (Iruñea, 1963) azken multzo horretakoa da, margolari autodidakta, margolanik eta sorkuntza barik bizitza ulertzen ez duen artista. "Nire oroitzapenak, arkatzei eta margoei lotuta daude. Marrazteak beste gauza batzuek ematen ez zidaten zoriona ematen zidan umetan, eta horrek horrela iraun du urteetan zehar; nire bizitza margoarekin egon da lotuta beti".

Arte Ederrak ikasi nahi izan arren, etxeko egoera ekonomikoak ez zion horretarako aukerarik eskaini Agorretari. Lan-orduetatik kanpoko momentuak pintatzeko baliatuz, pinturarekiko zeukan harremana barnerakoiago bihurtu zen. Pintore bezala inolako aukerarik ez zeukala pentsa-tzera ere heldu zela aitortzen du Agorretak, harik eta, bere lehen erakusketa sortzeko aukera eskaini zioten arte, eta "ordutik aurrera, dena modu natural batean joan da gertatzen".

Pintura bizi-filosofia da nafarrarentzat, munduan egoteko eta inguruarekin erlazionatzeko daukan era margotzea da, eta bere hitzetan, hori guztia izan du eskola, eta horrek balio izan dio margotzen jarraitzeko.

Esfortzuak saria ere badakarrela aitortzen du Agorretak, bere kasuan bai behintzat. "Beti saiatu naiz ilusionatzen ninduen hura lortzearren. Beti margotu izan dut inolako transzendentziarik gabe, egiten nuenak nolabaiteko garrantzia zuela sinetsi barik, erabateko naturaltasunez". Eta norberaren lanean benetako inportantzia zintzotasunak daukala uste du pintore nafarrak. "Ni sekula ez naiz inongo joera edo mugimenduren barruan kokatu izan, ez dut inguru ofizialetatik zetozen joeretan parte hartu, eta horrek

ere uste dut eragin dezakeela norbere lanaren benetakotasunean". Agorretaren arabera, balore moduan hartzen omen da zarena izatea egindako lan guztietan.

GOGOETARAKO GONBITA Horma apurtuak, berogailu zaharkituak... dekadentzia ikus daiteke Agorretaren azken aldiko lanetan. Dekadentziaren edertasuna, nahi bada. "Espazio abandonatuak pintatzen baditut espazio horiek margotzeko bezain duinak direla uste dudalako da. Momentu honetan nire margoak denboraren igarotzeaz mintzo dira, bertan behera ahaztuta utzi behar ez den memoriaz". Eta horretan bat datoz obren ikusleak eta bere lanaren inguruan eginiko hainbat kritika ere.

Momentuak eta ezagutzak garrantzia handia dute Agorretaren ustez. Bere hitzetan, koadro poetikoak dira egin nahiko lituzkeenak eta poesiak azkenaldian ezagututakoa izan behar duela ardatz uste du margolariak. "Espazioak, arkitekturak... oso errotuta daude nire errealitatean, eta nolabait munduan egoteko dudan moduaz hitz egiten dute".

Agorretak zarata ez du gustuko, zarata gaur egungo gizartearen metafora gisa. "Zer izan garen ez dugu begi-bistatik galdu behar, nondik gatozen jakin behar dugu, eta horrek guztiak ibilbide bat duela jakin, duintasuna duen ibilbide bat". Espazio abandonatuak dira iruindarrak margotzen dituenak, bai, baina iragan garaietan bizitza eduki izan duten espazioak.

Dekadentzia hori guztia kolore leunez margotzen du, zuria eta okrea bezalako koloreak dira eraikin eta objektu hautsiei ukitu malenkoniatsua ematen diena, iragandako denboraren erruz itsasoaren erdian noraezean dabilen itsasontzia bailiran. "Gustatuko litzaidake jendea nire koadroekin identifikatzea, eta bertan agertzen dena bakoitzaren bizipenetara moldatzea". Ikusleak gogoeta egitera bultzatu nahi ditu Agorretak.

Aipatutako lan horiek omen dira pintorearen obrarik helduenak. Azaltzen duenez, eboluzio nabaria egon da bere lanetan hogei urte zituenetik gaur arte. "Hasieran margotzeko neukan estiloa biziagoa zen, espresionistagoa... baina, normala denez, nire bizitzan hainbat gertaera egon dira, eta horien eraginez pintatzeko era ere aldatuz doa, modu kontziente baten ez bada ere".

Margotze prozesuari buruz galdetuta, pintatzea merezi duten elementuak eta merezi ez dutenak daudela dio artista nafarrak. Leku bat ikusi eta leku horrek margotzea merezi badu, argazki kamerarekin itzultzen da Agorreta, eta, ondoren, ateratako argazki guztien artean aukeraketa bat egiten du. Azkenik, argazkiren batek gaitasun piktorikoa aktibatu badu mihisera eramaten du. "Baina margotzeari ekiten diodanean ez dut jakiten nola amaituko duen koadroak; gutxi gorabehera bai, argazki bat badudalako eta argazki hori dudalako oinarri, baina zehatzmehatz ez dut jakiten zer den nahi dudana. Beraz, adi egon behar izaten dut, momentu batean zerbait ager litekeelako nire lana baliagarri egingo duena". Baina zerbait hori zer den azaltzen ez du asmatzen. Ez daki zein izen daukan, baina zerbait horren arabera funtzionatuko du margolanak edo ez du funtzionatuko. "Badaude zenbait koadro beste batzuk bezain ondo egon daitezkeenak, baina zerbait hori ikusten ez badiet bota egingo ditut".

PUBLIKOAREN ERAGINIK EZ Agorretak argi dauka berarentzat margotzen duela, argi daukan bezala ez duela inolako harremanik izan behar publikoarekin. "Nik neuk dakit momentu oro zer margotu nahi dudan eta zer ez, nire lana nola garatu nahi dudan, nahiz eta, kontziente izan publiko bat egon badagoela eta modu natural baten *harremandu* berarekin". Bere margolari lanaren inguruan, besteren batek lantegian egiten duen lanaren inguruan hitz egiten duen era berean hitz egin dezakeela onartzen du nafarrak. Baina margotzerako orduan norberak bereari eutsi behar diola defendatzen du, eta benetan margotu nahi duena margotu, publikoari gustatuko zaion edo ez pentsatu gabe. "Hala ere, zortea izan dut eta publikoak beti erakutsi izan du interesa nire lanaren gainean, eta nik jardun dudan inguruan, Iruñea inguruan, ondo hartu izan naute beti. Gainera, sekula ez dut arazorik izan nire lanak plazaratzeko orduan".

Baina bere ingurune gertukotik ere ez da irten, horretarako saiakera askorik ere egin ez duen arren. Orain, baina, aitortzen du faltan botatzen duela kanpora irteteko ahalegin handiagoa egin ez izana, Donostian, Bilbon... bere lanen batzuk erakutsi ez izana. "Kanpora irten naizenean beti egoera ezohikoetan izan da, baina inoiz ez dut nire alde apustu egin duen galeriarik eduki".

Momentu honetan nire margoak denboraren igarotzeaz mintzo dira, bertan behera ahaztuta utzi behar ez den memoriaz"

Uste dut kultura babesten segi behar dela. Errore bat da kultura aisialdiarekin lotzea heziketarekin lotu beharrean"

MARGOAREN BAITAN ASEGAITZ

Oteizaren inguruan eginiko lan baten harira ea inoiz artearen beste alorren batean aritzeko gogorik izan duen galdetuta, argia izan da Agorretaren erantzuna: "Buru-belarri nago pinturari eskainita. Inoiz pentsatu izan dut diziplinartekotasunean, eta beste adierazpide kultural batean aritzeko aukera ere balegokeela, baina horrenbeste daukat pinturaren munduan egiteke, ez daukadala beste alor batzuk arakatzeko behar izanik".

KULTURA ETA HEZIKETA Bizi dugun garaiotan kultura defendatu beharreko zerbait dela adierazten du Jose Ignacio Agorretak, eta borrokatu inolako beldur eta lotsarik gabe, bere berbetan, ia kriminalizatu ere egin dituztelako kulturaren aldeko laguntza ekonomikoak defendatu izan dituztenak. "Uste dut kultura babesten segi behar dela, bai erakunde publikoetatik, bai pribatuetatik. Errore bat da kultura aisialdiarekin lotzea heziketarekin lotu beharrean. Inork ez du zalantzan jartzen heziketa bat izateko dugun eskubidea babestu egin behar dela, baina badirudi ez dugula ulertzen heziketa hori ezin dela gizakiak fenomeno kulturalak ekoizteko duen gaitasunetik bereizi".

Margolariaren hitzetan, gizakiak gara izaki inteligenteak garen neurrian, eta ondorioz, izaki sortzaileak garen neurrian. Eskubideak eta askatasunak kultura libre bat garatzen joan garen heinean lortu omen ditugu; herriek gero eta kultura gehiago izan, garapen ekonomikoa zein giza garapena ere ugarituz joango dela defendatzen du. "Beharbada, zenbaitzuek beldur izango diote herri batek gaitasun kritikoa garatu ahal izateari. Gainera, baliteke orain ordaintzen ari izatea hezkuntza sisteman eta gizartean bertan aukera teknikoak eta zientifikoak bultzatu izana, aukera humanistikoak bultzatu beharrean". Arte adierazpiderik primitiboenetakoa da margotzearena. Kobazuloetan bizi ziren garaietatik XXI. mendera arte etenik izan ez duena. Agorreta ez dabil oker gizakiaren gizatasuna sorkuntzari lotuta doala esaterakoan, beraz, egin diezaiogun esperantzari lekurik ere, margotzen duen herria sekula ez delako kolorerik gabe geratuko.

"Zortea izan dut eta publikoak beti erakutsi izan du interesa nire lanaren gainean", eskertzen du. IBAN AGUINAGA

Drama eta irriaren arteko oreka

Komedia goratzen duen istorio horietakoa ei da 'Emaztegaiaren semea', Ados Teatroa konpainiaren azkeneko antzezlana

MARTA MORALES

EMAZTEGAIAREN semea antzezlana da Ados Teatroaren aurtengo proposamen berria. Fernando Castets eta Juan Jose Campanellaren *El hijo de la novia* filma argentinar arrakastatsuan oinarritutako obra da, hain zuzen ere. "Komedia handi egiten duten istorio horietakoa da", ziurtatu du Garbi Losada zuzendariak. Bizitzaren puskak eraman dituzte oholtzara, ikusleriak bere burua erraz identifikatu ahalko duen egoerak eta bizipenak. "Istorio asko kontatzen dira: txikiak eta handiak, gogorrak, barregarriak, zailak, hunkigarriak, tristeak, itxaropentsuak... bizitza bezalakoxeak", azaldu du Losadak.

Asier Hormaza, Sara Cozar, Iñake Irastorza, Kandido Uranga eta Mikel Laskurain dira pertsonaiei bizitza emateko arduradunak, eskarmentu handiko aktoreak guztiak. "Talde hoberena daukagu", baieztatu du zuzendariak. Kontakizuneko pertsonaien izaerarekin bat etorriko liratekeen aktoreak bilatu zituztela ere nabarmendu du. "Zoragarria izan da haiekin lan egitea", gaineratu du.

Aipatu antzezlanak gertakizun nagusi bi ditu egitura tragikomikoaren oinarri: gurasoen ezkontza eta familia-jatetxea den zorigaiztoko negozioa kate multinazional bati saldu beharra: aurrera egiteko enpresari txiki horren trikimailuak, bere balioek inolako baliorik ez dutela ikusten ari den agurea, oroimena galdutako atsoa... "Gaur egun milioika pertsona daude Rafaelen egoeran, gaizki dabilen negozio txiki bat aurrera atera nahian, burubelarri lanean, bere familia eta langileak ere negozio horren menpe daudelarik", gogorarazi du Losadak.

ELKARRIZKETA ZORAGARRIAK Garbi Losadak berak eta Jose Antonio Vitoriak egin dute *Emaztegaiaren semea* obraren antzerki-egokitzapena. *El hijo de la novia* filma aspaldian ikusita bazuen ere, iaz berriro ikusi zuen Losadak. Bere ustez, pelikularen alderik azpimarragarriena gidoia da. "Elkarrizketa zoragarriak ditu, hasieratik bukaerara hunkiarazten zaituen drama eta komediaren arteko oreka lortuz", zehaztu du. Horretaz gain, pertsonaia guztiak "oso errealak" direla ere nabarmendu du.

Orduan izan zen *El hijo de la novia* pelikula antzelan bihurtzeko ideia. Istorioa interesgarria izateaz gain, ikusleriarentzako ere entretenigarria izan zitekeela pentsatu zuten. Esan eta ekin. Gainera, Vitoria Fernando Castetsen –filmaren gidoigilea, Campanelarekin batera– laguna zen. "Beraiek ere buruan zuten filma *antzerkiratzea*, beraz, baietz esan zuten, aurrera egiteko. Eta hemen gaude".

Tolosako Leidor Antzokian izan ziren aurreko ostiralean. Bertan egin zuten lehenengo emankizuna, buru-belarri entseatzen duela bi hilabete hasi ziren arren. *Emaztegaiaren semea* lanaren protagonista den Asier Hormaza aktoreak "erronka polita" dela esan du *El hijo de la novia* taulara eramateko lana. "Funtzioak daraman erritmoa, bai ekintzaz eta bai emozioz, izan da gehien kostatu zaidana", aitortu du.

PERTSONAIEN IBILBIDEA Pertsonaien nondik norakoak oso ondo idatzita daudela dio, beraz, horien egoeran murgiltzea eta zehazki Rafaelen errolean aritzea ez dela batere zaila izan baieztatu du. Izan ere, gidoia irakurri zuenean, gehien gustatu zitzaiona horixe izan zen: bere pertsonaiak duen ibilbidea, baita bere munduan parte hartzen duten pertsonekin duen erlazioa ere. "Rafaelek bere egoerari buelta ematen dio guztiz", nabarmendu du Hormazak. Hori lortzeko, baina, Rafaelek bizi behar dituen hainbat egoera oso atseginak ez direla izango aurreratu du aktore protagonistak.

Emaztegaiaren semea antzezlanean emozio eta komediaren arteko oreka lortzen dela azpimarratu du Garbi Losadak, eta Hormaza bat dator iritzi horrekin. Aktore batentzat hori oso erakargarria dela adierazi du. "Aktoreen lana emozioak gorpuztea da, komerian edota hunkigarriak diren uneetan oinarrituta, erregistro horiek bizitzea da eta zailtasuna dator momentu jakin batetik bestera barrea zein malkoak eragitean. Beraz, alde horretatik guretzat polita izan da aukera hau izatea", azaldu du. "Pertsonaiekin identifikatzen garenean, bere bizipenak gureak ere badira, eta sentitzen duguna areagotu egiten da", erantsi du Losada zuzendariak.

Berak ere *El hijo de la novia* filma ikusita zeukan, baina ez da horretan oinarritu bere pertsonaia garatzeko orduan. "Inolaz ere, hura zinemarako lan bat da eta hau antzerkia da, bi lengoaia ezberdin dira, bai gorpuzterakoan, baita egiteko orduan ere", azaldu du Hormazak.

Beraz, emaitzarekin pozik agertu da talde osoa. "Prozesu zoriontsua izan da. Denok eman dugu guretik hoberena, eta orain, ikusleari antzezlana gustatzea espero dugu", gaineratu du Losadak.

Ados Teatroko kideei jarraiki, ikusleriak bere burua erraz identifikatu ahal izango du obran azaltzen diren istorioetan. EZTIPHOTO

HERRIZ HERRI

'Emaztegaiaren semea' antzezlanarekin hasi berriak badira ere, datozen hilabeteetan ez dira geldirik egongo Ados Teatroko kideak. Hil honetan hasita eta urria bitartean, Hondarribia, Hernani, Barakaldo, Galdakao, Zumarraga, Gernika, Donostia eta Gasteiz bisitatuko dituzte, besteak beste.

Helduak eta gazteak eskutik

Teknologia berriek sortze-prozesuetan eragindako etsenpluak agertu asmoz, 'Bide zabalak' erakusketa kolektiboa hartzen du Eibarko kultur etxeak hilaren 24a bitartean

Digitalizazioak, adierazpen artistikoen estandarizazioa ekarri beharrean, aukerak biderkatu ditu. M. ONANDIA

MIKEL ONANDIA

AZKEN hamarkadan teknologia digitalak modu nabarmenean mundua ulertu eta ikusteko modua aldatu du, eta arte garaikidea ez da salbuespena izan. Alderantziz, arte diziplina tradizionalak irauli eta berriak ere sortu dira, modu aberasgarrian. Horren adibide dugu *mostra* hau. Bertan mundu digitala oinarri duten proposamen anitzak agertzen dituzten Leioako Arte Ederren Fakultateko adin ezberdineko irakasle eta ikasleen lanak biltzen dira.

Modu batean edo bestean, argazkilaritza, marrazketa, margolaritza, instalazioa, diseinu grafikoa, ilustrazioa zein ikus-entzutekoak lantzen dituzten artistek komunikazio erreminta digital ezberdinak erabili dituzte beraien lanak gauzatzeko, teknologia berriak talentuaren eta sormenaren zerbitzuan jarriz.

Izaskun Etxebarria eibartarrak hainbat lan erakusten ditu, zinez interesgarriak direnak, besteak beste, gardentasunen, formen silueten eta hondoko kolore neutroekin jolastuz, egun ez dauden espazioen desagerpena iradokitzen duten konposizioak, edota forma geometriko konplexuez osatutako marrazkiak, horietako bat zelofanez hormara eramana. Bere aldetik, Mariana Martinek hiri paisaian aurki ditzakegun horma zaharkituen baitan oihal estanpatuaren zatiak txertatuz pareta horiek berezkoa duten historia luze eta konplexua osatzen du.

Jabier Villarreal irakasleak, argazkiaren eta pinturaren mugetan mugituta, lan ezberdinak aurkezten ditu; atentzioa deitzen dute aluminiozko xaflen gaineko hiri paisaia monumental eta eszenografikoak –izan Bilboko Iturribide ala Chicagoko Board of Trade– zein Añanako gatzagen interpretazio dramatikoak, bereziki Brueghel *Zaharra*-ren Babel dorrean inspiratzen dena.

ETORKIZUNEKO ARTISTEI AUPADA

Inoiz ez dira garai errazak artegintzarako, are gutxiago krisi ekonomiko betean. Sortzaile gazteek zailtasun izugarriak dituzte arte sisteman beren lekutxoa egiteko, eta egon badiren beka, sari eta nobelentzako erakusketak beti dira urriak. Horregatik, artista helduagoek gazteenekin elkarlanean antolatutako erakusketa hauek aukera ezin hobea dira etorkizuneko artistak izango direnei aupada emateko.

Aurrez-aurre, Xabier Idoate nafarrak mosaiko erakargarria osatu du, motibo, kolore eta forma kapa ezberdinen gainjartzearen bitartez osatutako narrazio bisuala pareta luzean barrena kokatuz. Horrela, kontrapuntu kromatikoa agertu eta ikuslea istorioan galtzera gonbidatzen du artistak.

Xabier Barriosek, besteak beste, *PublicXculture* seriearekin hiri eskultura eta monumentu ospetsuenak bestelako begirada batez berrinterpretatzen ditu –Guggenheimeko *Puppy* sutan, *Haizearen orrazia* koloreztatua zein Gasteizko Foru Plaza urez gainezka–, modu ironiko eta asaldagarrian. Muntaia panoramikoan, pribatuaren eta publikoaren arteko dikotomia azpimarratuz etxeko egongela ezberdinak agertzen ditu.

Bere aldetik, Silvia Ruiz gaztearen tamaina handiko argazkiek, konposizio aldetik errepikapena eta denboraren kontzepzio geldo batez, gizakion alderdi introspektibo eta intimoenari egiten diote erreferentzia.

ATMOSFERA GRISAK Bestalde, izandakoaren eta denaren arteko fusio gisa, eraikinen hondakinetan arkitektura irudiak identifikatzen ditugu Silvia Abella eta Maialen Arocenaren lanetan, atmosfera griseko serie eder bati bide emanez. Bukatzeko, Patxi Araujo, abstrakzioaren eta figuratiboaren artean den argi-ilun kontrastedun esferekin, eta Augusto Zubiaga ixiotu eta mugitzen diren gailu elektronikoekin, proposamen ausartenak agerturik, erakusketaren ildo nagusitik irtetzen dira.

Artista gazteak –baliabide digitalekin hazi eta heziak– eta helduagoak –teknika tradizionaletan trebatu eta teknologia berriak bere egin dituztenak– nahastean, artearen bide eta norabide ireki eta zabalak erakusten zaizkigu. Espazioa eta asmo artistikoa partekatzen duten artisten lanek frogatu legez, digitalizazioak, adierazpen artistikoen estandarizazioa ekarri beharrean, konplexuagotzea ekarri du, lengoaia eta teknika berriek sormen aukerak multiplikatu baitituzte.

Argazkien, fotomuntaien eta irudi digitalen arteko mugak lausoak dira egun. Hiru esparru horien artean mugitzen dira Portalea kultur etxeko lan gehienak, egun indarrean dagoen manifestazio artistikoaren aniztasunaren zatitxo bat baino ez. Alabaina, oro har, tramankulu teknologikoak zein bestelako gailuak dituzten piezak badira ere, gehienek euskarri bidimentsionalak dituzte, izan mihisea edo paperak.

Aretoak espazio ezberdinak agertzen ditu, egokiak oso halako *mostrak* hartzeko –autore bakoitzak bere txokoa duelako, behar denean albokoarekin elkarrizketan–, artista indibidualen ahotsa eta diskurtso kolektiboaren arteko oreka modu bikainean ahalbidetuz.

Zinez, belaunaldi ezberdinetako sortzaileak giro berean elkarlanean zer nolako arte modua gauzatzen duten ikusteko abagune aproposa, *Bide zabalak*.

Katalunia pintoreskoa, hara bestea!

Paisaia magikoa eta irreala da Ebro ibaiaren delta. Arroza eskuz landatzen dutenei, ordea, ez die graziarik egiten euren bizimodua pintoreskoa dela esateak

EBRO ibaiaren delta paisaia magikoa izango da beti niretzat, haurtzaroko eszenatoki irreal samarra. Han ikusi bainituen lehenengo aldiz, hamabi urterekin, ispilatzeak: hareatza amaigabea, itsaso argitsua eta zerua nahasten diren horizontean, kotxeak airetik zihoazen, dardarka... eta gurpilak goraka!

Askotan joan naizen arren, delta deskubritzeak harritu egiten nau beti: kostako lerro zuzena jarraituz noa errepidetik, eta halako batean kostako lerro hori zeharka barneratzen da itsasorantz gezi handi bat bezala, kontinentetik ihes egin nahiko lukeen lautada berde baten moduan. 320 kilometro karratuko eremu horretan apenas dagoen metro bateko altuera gainditzen duen lurrik (duna batek bost metro neurtzen ditu: hori da punturik garaiena). Eta nahiko lurralde berria da: duela bost edo sei mende, Monegroseko basoak bota zituzten Aragoin, armadako ontziak eraikitzeko, eta eskualde hura basamortu bihurtzearekin batera, higadurak lurra arrastaka eman zuen Ebron behera, milioika tona urtero, eta orduan hasi zen delta sortzen.

Deltan urmaelak, gatzagak, dunak, kanaberadiak, lezkadiak eta hondartza zabalak daude. Hegaztien paradisua da: flamenkoak, lertxunak, ahateak, ubarroiak eta dozenaka espezie bizi dira bertan. Baina deltaren hiru laurdenak moketa berdez estalita daude: arroz-soroak.

Kanal eta ubide sare batek ureztatzen ditu arroz-soroak. Baina ez dute deltan bertan ura hartzen, itsasoko ur gazia oso barrura sartzen delako, lur barnean 30 kilometroraino. Arroz-soroetarako ura 50 kilometro gorago kentzen diote Ebrori, Xerta eta Vinyent herrien parean, eta handik datoz kanalak deltaraino.

Bi gizon topatu nituen arroz-soroetan belaunetaraino sartuta, landareak eskutan zituztela, tarteka makurtzen. Zertan ari ziren galdetu nien. "Arroza ondo sartu ez den lekuetan berriz ere landareak sartzen. Ikusten duzu: inguru honetan berde gutxi eta putzu asko dago, horrek esan nahi du landareak ez diola ondo heldu. Uztaldia oso luzea da, badago denbora nahikoa berriz landatzeko. Baina, egia esan, soroa politago egoteko egiten dugu hau. Pena ematen du zona hau urez beteta ikusteak, berdearen erdian. Eskuz egiten dugu dena, duela mende asko bezala. Horregatik Bartzelonan esaten dute Katalunia pintoreskoa eta ezezaguna garela. Katalunia ezezaguna, *no te jode*!

Gizonak itsasorantz seinalatu zuen. Marquesa hondartzan eta Fangar lurmuturrean zabor mordoa zegoen, itsasoak utzitakoa, eta ea paraje horiek ikusi nituen galdetu zidan. Baietz.

- Horrelako txorakeriak esan ordez, dirua bidali beharko lukete hondartzak garbitzeko. Niri iruditzen zait Katalunia pintoreskoa eta horrelako ergelkeriak esaten dituztela gu pozik gelditu eta konformatzeko.

Hegaztien paradisua da, baina deltaren hiru laurdenak moketa berdez estalita daude: arroz-soroak

BIDAIA KOADERNOA

artez
euskara zerbitzua
itzulpenak - hizkuntza aholkularitza - papergintza
944 480 000 posta@artez.net www.artez.net